

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko abuztuaren 21etik abuztuaren 25erako astea


➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: PMI MANUFATURA-INDIZEA



Datuaren analisia


Abuztuko euroguneko aurretiko manufakturen PMIa ekaineko maximoen parekoa izan zen (57,4). Osagai guztien portaera ona nabarmendu behar da, batez ere, osagai garrantzitsuenena, hala nola aginduak, eskaerak, enplegua eta prezioak. Indizeak euroguneko sektore pribatuaren jardueraren hazkunde "bizia" erakusten du. Horrela, Euroguneko industriaren inguruko aurreikuspen onak baieztatu egin ziren. Zerbitzuen PMIa, ordea, gelditu egin zen (54,9), eskari berrien hedapen-erritmo apalagoaren ondorioz. Hala ere, oraingo mailek dinamismo argia erakusten dute. Bestalde, euroguneko bi ekonomia nagusietan, Alemanian eta Frantzian, datuek jarduera osoaren hazkunde "sendoa" erakutsi zuten abuztuan. Hain zuzen ere, Alemaniak 55,7ko hazkundea izan zuen, aurreko 54,7aren aldean. Frantziak, aldiz, 55,6ari eutsi zion, aldaketarik gabe.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko eraketan profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: IFO



Datuaren analisia

Alemaniako Ikerketa Ekonomikoen Institutuak argitaratzen duen enpresen konfiantza-indizea (IFO) 115,9 puntuetaraino jaitsi zen abuztuan, uztailleko 116 puntuen errekorretik, eta amaiera eman zion horrela hiru hilabetez jarraian izandako igoerei. Oraingo egoeraren balorazio okerrago bat dago honen atzean (hain zuzen ere, oraingo egoeraren indizea uztailleko 125,5etik 124,6ra jaitsi da). Baina, beste alde batetik, enpresarioek haien aurreikuspenak hobetu dituzte. Honek zera esan nahi du, Alemaniako ekonomiak ez duela behar baino gehiago berotzeko arriskurik bizi, eta oraindik hazteko marjina daukala, ematen baitu munduko garapen politikoez ez diotela herrialde honi eragiten, Ifo institutuko ekonomista batek esan zuen moduan.


Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako jarduera ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ONDASUN IRAUNKORREN AGINDUAK



Datuaren analisia

Ondasun iraunkorren aginduek % 6,8 egin zuten behera iragan hilean. Hala eta guztiz ere, ondasun iraunkorren aginduen datua espero baino hobea izan zen, bidalketak espero baino gehiago igo baitziren. Nolanahi ere, garraioen galera kontuan hartu gabe, adierazlea ehuneko 0,5 igo zen, merkatuak kalkulaturako 0,4tik gora.

Adierazlearen azalpena

Ondasun Iraunkorren Eskaren Indizeak fabrikatzaile nazionaleri berehala eta etorkizunean entregatzeko egiten zaizkien eskari berriak aztertzen ditu. Hiru urtetik gorako bizitza daukaten produktu industrialak besterik ez dira aintzat hartzen. Ekoizpen industrialaren adierazle aurreratu bat da. Indize hau hazten denean, eskaria indartzen ari dela esan nahi du. Produktu iraunkor hauetarako inbertsio handiak egin behar direnez, herrialdearen egoera ekonomikoak eragina dauka emaitzetan.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: KPI



Datuaren analisisia

Uztailean, Japoniako KPIa % 0,4koa izan zen, merkatuaren aurreikuspenen pare. Herrialdeko erreferentzia-tasa, berriz, elikagai freskoen prezioen inpaktua kanpo uzten duena, % 0,5ekoa izan zen, Japoniako Bankuaren helburutik (% 2) urruti. Nahiz eta Japoniako Bankuak (BoJ) ekonomia sustatzeko plan masibo bat aktibatu zuen 2013an, datu horrek erakusten du Japoniako gobernuak inflazioa urte arteko % 2an kokatzeko helburua lortzeko oraindik dituen zailtasunak.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Erem	Adierazle	Aurreiku
08/28	Italia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	--
08/28	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 0.3
08/28	Estatu Batuak	MoM xehekako inbentarioak	--
08/28	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	--
08/29	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	--
08/29	Frantzia	Urte arteko BPGd	--
08/29	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	119.0
08/30	Japonia	Hileko xehekako salmentak	% 0.3
08/30	Espainia	Urte arteko KPIa	--
08/30	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	--
08/30	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	--
08/30	Italia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	--
08/30	Alemania	Urte arteko KPIa	--
08/30	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	180k
08/30	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 2.7
08/31	Erresuma	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	--
08/31	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 5.1
08/31	Txina	Fabrikazioaren PMIa	51.2
08/31	Txina	Ez fabrikazioaren PMIa	--
08/31	Frantzia	Urte arteko KPIa	--
08/31	Frantzia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	--
08/31	Espainia	SA YoY xehekako salmentak	--
08/31	Espainia	Kontu korrontearen balantza	--
08/31	Italia	Langabezia-tasa	--
08/31	Eurogunea	Langabezia-tasa	--
08/31	Eurogunea	Urte arteko KPIaren kalkulua	--
08/31	Italia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	--
08/31	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	--
08/31	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
08/31	Estatu Batuak	Chicagoko manufakturen indizea	58.0
08/31	Estatu Batuak	Egiteke dauden etxebizitzien salmentak urte	--
09/01	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
09/01	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	51.0
09/01	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	--
09/01	Italia	Italiako Markit/ADACI fabrikazioaren PMIa	--
09/01	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	--
09/01	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	--
09/01	Italia	Urte arteko WDA PMIa	--
09/01	Italia	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	--
09/01	Eurogunea	Markit UK PMI Manufacturing SA	--
09/01	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	4K
09/01	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	--
09/01	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	--
09/01	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	--

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Itxiera mistoak burtsa-merkatuetan, positiboak Estatu batuetan eta batez ere gorakorretan, eta negatiboak Europan, negoziazio-bolumen baxuekin, abuztuan ohikoa izaten den moduan. Astearen amaierara arte, indizeak stand by-n egon ziren. Kongresuak Estatu Batuen eta Mexikoren arteko mugan harresi bat ordaintzeko dirukontua onartzen ez badu, zorraren sabaia handitzeko negoziazioen porrot egiteko aukerei buruz Donald Trumpek egin zituen ohararazpenei arreta jarrita zeuden denak. Eta erreakzio positiboa izan zuten argitaratutako datu makroen aurrean. Baina astearen amaieran etorri zen denok espero zuten gertakaria: bankari zentralen urteko topaketa Jackson Hole-n, eta ondorengo banku zentraletako buru nagusien diskurtsoak, batez ere Janet Yellen Erreserba Federaleko presidentearena eta Mario Draghi Europako bere homologoarena. Haien diru-politiken hurrengo mugimenduei buruzko aztarnaren bat emango zutela espero zen. Biek ala biek babestu zituzten krisiaren ondoren egindako erreformak, baina bietako batek ere ez zuen jarraitu beharreko diru-politikari buruz hitz erdirik ere esan, eta merkatuek etsipenez hartu zuten.

ERRENTA FINKOA:

Errenta finkoa ere asteko gertakari honen, Jackson Holeko bileraren, zain geratu zen. Aste osoan erosketak nagusi izan ziren, baina ostiralean, Yellenen diskurtsoaren ondoren, mugimenduak are gehiago azkartu ziren. Gauzak horrela, 10 urterako amerikar bonuaren errentagarritasunak 3 op egin zuen behera, Alemaniakoak bezala, eta astea % 2,17ko eta % 0,38ko errentagarritasunekin itxi zuten hurrenez hurren. Espainiako 10 urterako bonuak, aldiz, 5 op egin zuen gora, % 1,61eraino, eta arrisku-prima 122 op-ra iritsi zen.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisen merkatuan, euroa izan zen asteko protagonista nagusietako bat, % 1,17ko balioa irabazi baitzuen dolarraren aurrean, eta 1,19\$/€ kotizaziora heldu zen, errekorra 2015eko urtarriletik. Aurreko egunetan eman zen dolarraren ahultasuna bizkortu egin zen, batez ere Yellenen hitzen eta Draghiren diskurtsoaren ondoren, Wall Streeten itxiera baino pixka bat lehenago.

Lehengaien arloan, bestalde, oraindik hegazkortasuna izan da nagusi petrolioaren prezioan, eta % 1,47ko jaitsierarekin itxi du astea, LPEEek azaroan egingo duen bileraren inguruko aztarnen eta Estatu Batuetako urakanen sasoiaren hasieraren zain.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2017	
MSCI WORLD (Local)	1.467,19	0,55	7,55	
IBEX 35	10.345,30	-0,39	10,62	
Tipos Gobiernos		Nivel	Variación Semanal	Var 2017
EURO 2 AÑOS	0,074,00	-0,73	0,06	0,04
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,33	0,03	-0,05	
EURO 3 AÑOS	0,133,00	0,93	0,14	0,14
ALEMANIA 10 AÑOS	0,38	-0,03	0,17	
EURO 10 AÑOS	21.813,67	0,64	10,38	
EE.UU. 10 AÑOS	2,17	-0,03	-0,28	
ALEMANIA 30 AÑOS	0,404,00	-0,02	0,20	
ESPAÑA 30 AÑOS	2,81	0,06	0,20	
EUROPEAN GOVERNMENT BOND SPREAD (pb)	57,548,72	-0,03	0,32	20,77
MEXBOL	515,323	0,58	-12,55	
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	243,14	-6,29	-45,56	
DOVLETA	11.075,00	0,45	10,01	
SHANGHAI	3.489,14	1,93	7,37	
Rusia Rts Moscú	1.060,49	3,18	-7,97	

Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,19	1,17	12,71
Yen / Euro	129,82	0,96	5,51
Libra/ Euro	0,92	1,03	7,99

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	51,70	-1,47	-6,70
Oro	1.291,37	0,58	12,07

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.